Euskararen legeak 40 urte. Euskarak behar duen legea noizko?
EZ DITUGU BERTZE 40 URTE ZIKLOA

Euskararen legeak 40 urte beteko ditu heldu den abenduaren 15ean, eta horren bueltan zikloa antolatu Bortzirietako Euskara Zerbitzuak, legeak ekarri duenaren inguruan gogoeta egiteko eta euskararen normalizazioan aitzinera pausoak emanen badira, bertze lege berri bat aldarrikatzeko.

Hona hemen egitaraua:

EGITARAUA	
Azaroko osoko bilkuretan.	Mozioak onartuko dira: *Euskararen legeak 40 urte. Euskarak behar duen legea noizko?*
Abenduaren 3an, ortzegunarekin.	Adierazpena publiko egitea.
Abenduaren 9an, asteazkenarekin, 18:00etan, Lesakako Eskolttikin.	Garbiñe Elizegiren solasaldia: *Hizkuntza, kultura eta generoa: osasun-arretaren erronkak.*
Abenduaren 10ean, ortzegunarekin, 18:00etan, Berako Beralandetan.	Baztan-Bidasoko ikerketa soziolinguistikoaren emaitzen aurkezpena, Siadeco. *Eta 40 urteko euskararen legearen ondoren, zer?*
Abenduaren 15ean, asteartearekin, 17:30ean, Lesakako Eskolttikin.	Agurne Gaubeka (Behatokia). *Euskararen legeak 40 urte, hizkuntza eskubideak aitortzeko legea?*
Abenduaren 15ean, asteartearekin, 19:00etan. Beran Herriko Plazan. Lesakan Plaza Zaharrean.	Elkarretaratzeak: “Euskarari emanen dion ofizialtasuna orain”. Akabailan Euskal Herrian euskaraz kantatuko da. Deitzailea: Euskal Herrian Euskaraz.

Euskara zerbitzuak Bortzirietako euskaltzaleak eta eragileak, eta herritar oro gonbidatu nahi ditu jardunaldietan parte hartzera.

Prentsa ohar honekin batera udalek onartuko duten adierazpena bidali dugu, abenduaren 3ko euskararen egunean publiko eginen dena. Azaroan zehar, udalek mozioak onartuko dituzte:

ARANTZAKO UDALA	2026/11/19
BERAKO UDALA	2026/11/24
ETXALARKO UDALA	2026/11/19
IGANTZIKO UDALA	2026/11/16
LESAKAKO UDALA	2026/11/19

Arantzan, 2026ko azaroaren 16an



Urko Ikardo Enparan
Bortzirietako Euskara Zerbitzuko teknikaria